

Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

“Go!azen” euskara sustatzeko kanpainarik onena?



EZTABAIDA POLITA sortu da sustatu.com-en. Asier Sarasuak twitterren egindako hausnarketari lotuta iritzi zaparrada izan da. Laburrean

hauxe gaia: *Go!azen* film eta telebista saioa haur/gazteak euskarara erakartzeko baliagarria al da? Ez al dugu kontuan hartu behar produktuen maila artistikoa, alegia, kalitatea? Iritzi zaparradan batek baino gehiagok nabarmendu du euskarazko kantu mitikoen bertsio “kutreak” egin izana. Komentario horien pare bat zati ekarri ditugu hona.

Asier Sarasua:

✓ Behingoz, euskal umeak, euskal produktu batera engantxatu dira, eta hori, herri honetan, konkista txiki bat da.

✓ *Go!azen* izango da euskal pelikularik arrakastatsuenetakoa. Hori ere ez da gutxi.

✓ Garbizaletasuna ondo dago, baina umeei Hanna Montana eta High

Scholl Musical gustatzen zaizkie, eta horrelako produktuak behar dituzte.

✓ Lehenago ere badaude euskarazko produktu arrakastatsuak (*Betizu*, *Pirritx* eta *Porrotx*, eta abar), baina ez dira produktu “errealak”. *Go!azen* “egunerokoagoa” da (pailazo eta behi berritsu batzuk baino gehiago, behintzat). *Go!azen*en ikusten da, euskarak balio duela, bai ziriak sartzeko, bai zirriak egiteko, bai maitemintzeko, bai hasarretzeko, bai juergarako... Bizitzeko, alegia.

✓ Ondorioz. Bai, *Go!azen* oso produktu ona iruditzen zait ume eta gaztetxoaren artean euskararen erabilerara sustatzeko. Eskoletan egin daitezkeen kanpainak, irakaslearen hitzaldiak, Ukan birusak eta abarrak baino askoz gehiago, behinipein.

Sustatun Manexek erantzun dio Sarasuari: “Ez nago ados euskararen normalkuntza alde batetik eta produktuen maila artistikoa beste alde batetik guztiz bereiztearekin. Bi aspektuak lotuta daude zerbait berria proposatzen, sortzen dugunean. Eta zer nahi duzue esatea, gaur egungo gaztetxoak *Go!azen* bezalako zerbaiten forofo bihurtzen badira, ba deseroso sentitzen naiz. Ez zaidalako *Go!azen* gustatzen (nahi baduzue, ez zaidalako *Go!azen*-en maila artistikoa gustatzen), eta ez zaizkidalako *Go!azen*-ek komunikatzen dituen bizitza-estilo, mezu eta jokaerak gustatzen.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Langileen heriotza eta hipokresia politikoa

Joan den asteak argazki erreal bat utzi du: lan-istripuen eta arduradun politikoen hipokresiaren ondorio diren langileen heriotzarena. Aste horretan Bilboko eraikuntza sektorean bi hildako izan ziren, horietako bat Udalaren obra publiko batean. Gainera, jakin zen amiantoak ez duela soilik altzairuaren, siderurgiaren eta automozioaren enpresetan hiltzen, baita arrantza instalazio eta itsasontzietan ere. Ondarroako hamar arrantzale baino gehiago biriketako minbiziaz hil da, ontziak eraikitzeak erabiltzen den amiantoaren biktima. Beste industria sektoreetako euskal langile askok aurre hartu zien bidaia hilgarri horri, eta beste asko, modu itzulezinean gainera, zoritxarrez hiltzen joango dira, milaka baitira produktu اساسino horrekin lan egin dutenak, ondorioak zein diren jakin gabe. Amiantoaz gain, eta produkzio aktibitatea krisiaren ondorioz gutxitu egin den arren, jadanik 80 langile hil dira istripuz Euskal Herrian.

Bitartean, politikoei –atentatuen aurrean, edo pintada batzuegatik, edo euren egoitzei eta sindikatuenei egindako erasoengatik segituan mobilizatzen diren horiek– beste aldera begiratzen dute amiantoaren edo lan-istripuen biktima izan diren langileen heriotzaz ari garenean. Ez dute inoiz kontzentrazioa deitu. Jarrera hipokrita horren azkeneko adibidea joan den astean eskaini du Bilboko Udalak. EAJ, EB, PP eta PSeren botoekin, ezker abertzaleak lan-istripuez planteaturiko mozioari betoa jarri zioten. Ez zuten konprometitu nahi izan Bilbon hildako langileei elkartasuna adierazteko, istripuak argitzeko, bide judizialera jotzen bada akusazio partikular bezala aurkezteko, edota lan-prekarietatearen kontra 15 minutuko kontzentrazioa deitzeko orduan. Hori da errealitate soziala eta hori hipokresia politikoa.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Unai Fernandez de Betoño arkitektoak *Berrian* esanak:

“Arkitekturaren zabalkundeak garai oparoa bizi du oro har, baina oparotasun hori ez da euskarazko argitalpenetan nabari. Egia da azken bizpahiru urteotan arkitektura eta hirigintzaren alorreko hainbat klasi-koren itzulpena sustatzen hasi dela EHUren Euskarazko Zerbitzua. (...) Non da euskarazko berezko sorkuntza, baina? Hutsune hori betetzen laguntzeko asmoz sortu dugu orain *Aldiri*”.

Kanpokoaren indarra

GATAZKA POLITIKOAREN kudeaketa luzean urrats berri baten sozializazioa bizitzen ari gara asteotan. Ezker abertzaleko buruzagien atxiloketak, Donostiako manifestazioa, Batasunaren barne eztabaida, independentziaren aldeko indar metaketa bultzatzeko EAren erabakia, Nazio Etabaidagunearen berraktibatzea... eta gainera Lokarriren eskutik etorritako Brian Currinek diosku baietz, kasu egiteko Batasunaren baitan egosten ari denari. Eta, jakina, edozein taldetan kanpokoak esateak beti balore bikoitza du.

Aurrekontuen urteroko kudeaketaren ohiko garaietan, PP eta PSE-EE duela aste batzuk iritsi ziren akordioa. Ondoren Madrilen gauzatu zen jeltzale eta sozialisten arteko akordioa eta joan den astean PSE, EAJ eta Hamaikabat-en artekoa, egunerokotasunean sosak bideratzeko oinarriko bake instituzionalaren aldeko adostasuna. Eta garrantzitsuenetakoa lotu ondoren, eragile bakoitza politika egitera abiatuko da. Pragmatismoaren politikatik diskurtsoaren politikara.

Ez dira plano berean jokatzeko lehen paragrafoko gatazkaren kudeaketa eta bigarreneko eguneroko sosena, baina etengabe gurutzatzen dira eta elkar baldintzatzen dute. Lehenengo plano horretan, harrigarria da ikustea legez kanpoko ezker abertzaleak duen ahalmena, lurperatuta dirudienean behin eta berriz burua atera eta hemen nago esaka, errealismo zentzua eta barrura begirako oreka gaitzak mantentzeko duen abilezia erakutsiz. Bigarrenean EAJ-ren malgutasuna azaleratzen da indarrez, Donostiako manifestazioan abertzaletasunari keinua luzatzeaz batera, "ETAren estratigiari men"

egiteaz akusatzen duenari eskua luzatzen dio Madrilen. Eta esku ematea norabide bikoia denez, ez da txantxetako ikustea nola PSOEek ez duen arazorik Donostian ETAren eskutik doanarekin akordioa erdiesteko. Politikaren mirariak.

**"Nire esperientziatik
begiratuta, bake prozesu
batek aurrera egin dezan
irekia izan behar du,
gardena, hautesleria
inplikatu behar du,
kontsultak izan behar
dira"**

Brian Currin

BRIAN CURRINEK mezu ugari utzi ditu bere bisitan, nagusiki ENAMen barne eztabaida eta prozesuaz, bere esanetan, izaera berritzailea duena eta lagundu eta sostengatu beharko litzatekeena. Horrek du garrantzia eta aktualitatea egun. Baina iraganera begira ere aritu da eta azken bake prozesuaren izaeraz joan den igandean Noticias Taldeko elkarriketa batean esandakoak harritu nau ni, bai prozesuaren izaeraz dioenagatik eta bai egiten duen salaketa gogorragatik: "Nire esperientziatik begiratuta, bake prozesu batek aurrera egin dezan irekia izan behar du, gardena, hautesleria inplikatu behar du, kontsultak izan behar dira". Eta zorrotzagoa ere bada: "Prozesua maila guztietan zapaldua izan zen". Bere atzamarrak tinko begiratzen du PSOEren gobernura. Euskal Herrian ez zen halakorik bizi izan.

Zapateroren gobernuari luzatutako akusazioak ez dira harritzekoak, elkarriketa prozesuaz egin zen kudeaketa makur eta saboteatzaileaz asko hitz eta idatzi zen bere garaian. Eta ondoren, ETak Barajaseko T-4koarekin, saboteatzaileei egindako oparia. Jakina, arrazoi gehiago ere badira azken negoziazio saioaren porrotean, baina izango da horietaz berriz jarduteko denborarik, batez ere ENAMen "prozesu demokratikoaren" eztabaida arrakastaz gauzatzen bada.

ERRESUMA ZAHARREAN ere salda bitxia ari da egosten eltzean. UPNren eta PPren banaketa eman zen lehenik. UPNren baitan Miguel Sanz Gobernu-ko lehendakaria eta Yolanda Barcina alderdiko lehendakariaren arteko lehia inoiz baino indartsuago azaleratu da. PSNk gustura jarraitzen du UPNren lokarritik. Eta NaBaiko alderdiak ez dira ados jartzen koalizioaren barne diagnostikoaz: Aralarrentzat NaBairen noraeza agerikoa eta larria den bitartean, EAK ez du halakorik ikusten eta normala jotzen du alderdien arteko desberdintasunak izatea.

Horrez gain, publikoki ez da oraindik atera baina ikusi beharko da nola eragin diezaiokeen hauteskundeetan balizko polo soberanista batek NaBairi. Aukera zenbait bada dagoeneko: legez kanpoko ezker abertzalea NaBain integratu, beste zerbait berria sortu NaBai eta Batasunaren oinordekoen artean, azken hauek bakarrik joan... Bai, egia da urruti daudela kontu horiek, baina Nafarroako Aralarrek egin berri duen konferentzia politikoan hasi da jada NaBai-ren tripakien dantza. Egituraketa politikoaren eztabaidaz gain, alderdien lidergo borrokarako ateak zabalik dira berriz ere, batez ere EA eta Aralarren artean.